



Bertsozale Elkartearen Berripapera

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2024ko MAIATZA - 253. zenbakia

Antolakuntza egitura berria izango dugu Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen

Ekainetik aurrera aldaketa guztiak martxan egongo dira: koordinatzaile berria zein koordinazio lantaldea. Oier lurrarendik hartuko du koordinatzaile postua.

Prozesu luze baten ondoren, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen antolaketan pausoak ematera goaz orain. Koordinatzaile postua Oier lurrarendi Etxeberriak hartuko du. Sustapen eragilea izan da lurrarendi azken urteetan. Sustapenean geratzen den hutsunea betetzeko lan deialdia egin dugu, eta lankide berria hautatzean hartuko du koordinatzaile postua, ekainean.

Koordinatzailea, baina, lehendik ere martxan dagoen koordinazio lantaldearen

parte izango da. Koordinazio Taldea 2021eko lantaldeko berrantolaketaren testuinguruan sortu zen. Ordura arteko koordinazioaren egitura berri, eta talde modura kudeatzeko erabakia hartu zen. Talde hori lantaldeko ordezkariak osatzen dute, eta astero biltzen dira eguneroko jardunean eragina duten erabakiak hartzeko. Sortu zenetik hainbat lagunek parte hartu dute koordinatzaile bilera hauetan eta, orain, aldatzeko txanda heldu da. Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen lankide hauek osatuko dute taldea: Oier lurrarendi

(koordinatzailea), Aritz Zerain (finantzak), Oihana Aranguren (administrazio saila), Gaizka Azkarate (hedapen saila) eta komunikazio sailak.

Martxoan lehendakaritza talde berria aurkeztu genuen Bertsozale Elkartearen; hurrengo hauek dira kideak: Ainhoa Urien Telletxe, Onintza Enbeita Maguregi, Sustrai Colina Acordarrementeria eta Xabi Igoa Eriz. Taldea aurkeztu genuenetik, aipatu berri ditugun lantaldeko aldaketa horiek izan dira hurrengo pausoa Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen.



**ANDONI
EGAÑA MAKAZAGA**

DONOSTIA, 2024-04-19

LAU TXAPELDUNEN SAIOA

Doinua: Sorlekua utziz gero

Elkartzen gaituen zerbait badaukagu bai seguru bertsotan zorionean oro ez da lehia, gudu... Lau pentsamendu ta lau ideia lau bihotz eta lau buru txapelaz edo txapelik gabe plazak elkartzen gaitu gu.

Ekainetik aurrera antolakuntza aldaketa guztiak martxan egongo dira. //XDZ

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkartearen Diseinu-maketazioa / Diseinu Grafikoa / Argazkiak: Xepelarr Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazio@bertsozale.eus

'Nondik eta zeri ari gatzaizkio bertsoetan?' ikastaroa eskainiko dugu UPV/EHU ikastaroetan

Uztailaren 4an eta 5ean izango da ikastaroa Donostiako Miramar Jauregian. Matrikulatzeko epea zabalik dago, eta maiatzaren 31ra bitarte merkeagoa izango da.

Bertsolaritzari loturiko ikastaroa eskainiko dugu aurten ere UPV/EHU Uda Ikastaroetan *Nondik eta zeri ari gatzaizkio bertsoetan?* izenburupean. Euskal Herriko Bertsozale Elkartetik bideratu da ikastaroa, eta uztailaren 4an eta 5ean eskainiko da Donostian, Miramar Jauregian.

Bat-bateko bertsogintza garaikidearen sorkuntza mailako kezkei buruz hausnartzeko eta gogoetak partekatzeke gune izango da ikastaroa. Halaber, botere harremanak bertsolaritzan eta gai libreko bertsogintzaren gakoak azalduko dira. Eta azkenik, edukizko lanketari buruzko hainbat argibide plazaratuko dira bertan.

Hitzaizkiak eta mahai-ingurua

Hainbat hitzaizki eta mahai-inguru bat eskainiko dira egun bietan. Saioa Alkaiza izango da lehenengo eguneko aurreneko hizlaria, *Diskurtso guztiak errespetagarriak dira?* hitzaizkiarekin. Segidan, gaiak kantatzerakoan dugun zilegitasunari buruz ariko da Maider Arregi; eta botere harremanei buruz jarraituko du Onintza Enbeitak. Oihana Arana izango da eguneko azken hizlaria, eta bertsolaritza ideologikoki lerraturik ote dagoen hausnartuko du. Eguna biribiltzeko, lau hizlariak mahai-ingurua osatuko dute, egungo bertsogintzako diskurtso, zilegitasun eta itzalei buruz.

Bigarren egunean beste hainbeste hizlari izango ditugu. Jexux Mari Irazu izango da lehenengoa eta libreko bertsogintzari buruz ariko da. Alaiia Martin eta Imanol Artola izango dira hurrengoak, eta gai-jartzaile autoreari buruzko iritzia plazaratuko dute. Aitor Bizkarrak eta Oihana Iguaranek hitzaizki bana eskainiko dute egoera sozio-ekonomikoari kantatzen ote zaion hausnartuz. Azkenik, Oihane Pereak eta Beñat Gaztelumendik *Formatik haragoko lanketa bertso eskoletan; gaien eta ideologiaren lanketa* hitzaizkiak onduko dituzte, bakoitzak bere talaiatik.

Askotariko hitzaizkiak eta hizlariak, edozein bertsozale, bertsolari, aritu zein adituentzako erakargarriak direnak dudarik gabe. Areago, bertsolaritzatik haragoko beste kultur esparruetako eragile zein sortzaileentzat ere zalantza, bidegurutze zein kezke aritzeko aukerako plaza izango da ikastaroa.

Matrikula epea, zabalik

Zabalik dago ikastaroan matrikulatzeko epea, eta www.uik.eus atariaren bidez egin daiteke. Hurrengoak dira prezioak: orokorra, 84 euro; erretretadunak, langabeak, ikertzaileak... 71 euro; 25 urte arteko gazteak, maiatzaren 31 baino lehen matrikulatuz gero, 25 euro (bestela, 59 euro).



Nafarroako bertsolaritza ikertzeko deialdia jarri dugu martxan aurten ere

4.000 euroko dirulaguntza esleituko zaio hautatzen den ikerketa proiektuari, eta ikertzaile, edo ikertzaile taldeak, urtebeteko epean gauzatu beharko du proiektua.

Nafarroako bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa sustatzeko deialdia jarri du martxan Bertsozale Elkarteak. Edozein jakintza esparru oinarri hartuta egin beharko da ikerketa, beti ere Nafarroa Garaian gauzatzen den (edo gauzatu den) bertsolaritza ikertzea helburu. Gradu amaierako ikerketa proiektuak, master amaierako ikerketa proiektuak zein bestelako ikerketa proiektu monografikoak aurkeztu daitezke deialdira, beti ere unibertsitateko irakasle doktore baten zuzendaritzak bermatuta badira.

Uztailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira proiektuak eta ikerketan aditu diren hainbat lagunek osatutako batzordeak uztailaren 18a baino lehen jakinaraziko du zein izan den proiektu hautatua. Hortik aurrera, urtebeteko epea izango du ikerlariak, edo ikertzaile taldeak, proiektua gauzatu eta ikerketa lana aurkezteko. 4.000 euroko diru-laguntza bat jasoko du horretarako.

Deialdi honen bitartez, Nafarroako bertsolaritzari buruzko ikerketa eragiteaz gain, ikertzaile gazteak edo hasiberriak lehen urratsak ematen lagundu nahi ditu Bertsozale Elkarteak. Deialdiaren oinarriak eta informazioa www.bertsozale.eus atarian daude eskura.



Uztailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira proiektuak. //XDZ

Emakumeen haria omenduko dugu ekainaren 7an, Amasa-Villabonan

Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitza oihal fabrika izan zen pasa den mendean; bertan lan egindakoak eta egiten dutenak batuko dira ekimen honen inguruan.

Amasa-Villabonako Udalak Subijana eraikinaren memoria historikoa berreskuratzeko ekimena jarri du martxan, Bertsozale Elkartearen laguntzarekin. Eraikina 1880tik 1960ra oihal fabrika erreferentea izan zen eta langile asko emakumeak ziren. Egun, Euskal Herriko Bertsozale Elkartearen egoitza da eta bertsolaritzak eta bereziki emakumeek egindako lana ere nabarmendu nahi du udalak. Gainera, oihal fabrikatan bertsotan aritzen ziren langileak. Egun horretarako, Subijana eraikinaren iragana eta oraina islatuko dituen horma irudia margotuko dute fatxadan Izaro Lizarragak eta Arantxa Orbegozok, eta Maialen Lujanbioren bertso bat ere agertuko da idatzita.



Subijana eraikina 1880tik 1960ra oihal fabrika erreferentea izan zen. //Amasa-Villabonako udal artxiboa.

Egun osoko egitaraua eskainiko da ekainaren 7an, eta herritar guztiei dago zuzenduta:

17:00etan Subijana eraikinean bisita gidatua

Bisita gidatua egingo dugu eraikinean. Oihal fabrika zaharraren berri emango du Fanny Alonsok. Eta egun, Subijana eraikinean Bertsozale Elkarteak egiten duen lana azalduko dugu Elkarteko kideok.

18:00etan Emakumeen haria muralaren inaugurazioa

Izaro Lizarragak eta Arantxa Orbegozok horma irudian islatu dutena azalduko dute. Maialen Lujanbioren bertsoa ere plazaratuko da ekitaldian.

19:00etan Oihal fabrikari eta garaiko emakume bertsolariei eskainitako bertso saioa Subijana atzeko plazan.

Bertso saio tematikoak aukera emango digu 1880-1960 urte bitarteko Subijana oihal fabrika barrura sartzeko; baita garaian Villabona inguruan bertsolaritzak zuen indarrak jabetu eta fabrikako bat-bateko bertsoaldiak bizitzeko ere, historiako emakume bertsolarien berri ikasiz. Oihana Iguaran, Nerea Ibarzabal eta Alaia Martin ariko dira bertsotan eta gaiak Amaia Agirrek jarriko ditu.



Puntu jarrita

ERLANTZ IBARGURENGOITIA VALLE

Bertsoaren berezko ezaugarria da komunikazioa, kantukideen eta publikoaren arteko elkarriketa abestuan oinarritzen baita kantu errimatuaren dinamika, hartu eta eman taigabeen. Komunikatzea oinarri, erpinak eta koloreak ugariak diren honetan, bertsolariak lortu dute bazter hizkerak gertuago sentiaraztea eta ezagunak izatea, plazara ekartzea. Musika berean dantza egiten ohitu gara, nor bere erritmo eta mami propioan, nortasuna atxikita, baina ideien zuzeneko transmisioa betean. Distantziak distantzia, bertsolariak beti izan du mozorrotzeko eta doan lekura doala diskurtsoa ulergarri bilakatzeke ezaugarria, komunikatzea baitu helburu: burugarunean sortutako ideia ulergarri bilakatzea entzulearen barru oihartzunean. Egun gertu ditugu periferietako errima-hotsak, urrun sentitzen genituen diskurtsoak azkar batean heltzen zaizkigu belarri zokora... baina oro ez da urre, eta bizi garen gizarte likidoan gero eta bide estuagoa du bertsoak. Jada pilula txikien garaian bizi gara, ikus-entzunezko formatu laburreko diskurtsoen kontsumoan. Egunerokotasunaren isla dugu bertsoaren muina, hurbil-urruneko gertakarien kritikari zorrotz ditugu mikro aurreko kantariak eta saioen gidaritzan aritzen direnek ere horixe izaten dute jomugan, bertsolarien argi printzak noiz agertuko. Puntu luzeen kiribiltasun deabruzkoa, zein laburren zehaztasun neurtua... mementoan kantatuak izanagatik ateporalak ditugu gehienak; urte luzeen joanean indarra galdu ez duten irudi errealeko pelikulak. Soila, biluzia, unean unekoa eta estatikoa da bertsoa, antigualeko ezaugarriak ardatzen dituen eta oraindik orain erakargarri eta komunikatzeko gaitasun bete duena. Azkar batean eta puntu laburretan asetzen den gizartean habanerak egin dezala bide luzea eta, transistorearen uhinak lagun, iraungitze-datarik ez duten diskurtso kantatu eta errimatuaren gozamena. Ez dadila haria eten, biba el verso! Haria, Jon Etxebarria Txontxe, zein da egungo bertsoagintza josteko haria?

Koplak

Bizkaiko bertsolariaren jaia, maiatzaren 25ean

Arrigorriagan ospatuko da maiatzaren 25ean Bizkaiko bertsolariaren jaia. Goizean, Eskolarteko idatzizko zein bat-bateko finalak jokatu dira eskolan; ostean, bazkaria egingo da bertan. Arratsaldean, Taldekakoaren hiru finalurrekoak jokatu dira. Eguna amaitzeko, finala 22:00etan izango da Arrigorriagako Elizondo tabernan. Bazkarirako txatelak www.bertsosarrerak.eus atarian daude salgai.

Poto-Finixa



Ganbarazaina bertsolariak antolatzen.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bertso eskolei buruzko jardunaldia, Eskoriatzan

Ekainaren 21ean *Bertso Eskolak: nondik gatoz eta nora goaz?* jardunaldia egingo da Eskoriatzan, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak eta Bertsozale Elkateak antolatuta. Hitzaldi eta mahai-inguru desberdinekin, bertso-eskolei begira jarriko gara. Egitaraua eta informazioa datozen asteetan zabalduko dugu.



PUBLIZITATEA